


Amonaren etxean

XABIER ETXANIZ ERLE 2023ko urriaren 01a



Errekan behera

Testua: Pepe Maestro

Marrazkiak: Mercè López

Itzulpena: Patxi Zubizarreta

EREIN, 2023

Liburu hau dugu *Bioletaren sekretutegia* bildumako lehen alea; bigarrena *Ustekabea etxaldean* dugu. Lehen ale honetan Bioleta, zortzi urteko neskatxa berezia, eta haren amona aurkezten zaizkigu. “Bioleta irakurzale amorratua da. Dena irakurtzen du: zuhaitzetako azalak eta hostoak, animalien aztarnak, baita hazien, intsektuen eta hegaztien joan-etorriak ere... Bioletak zortzi urte ditu, eta bi txirikorda –zumezko hari batean bilduak–, eta amona miresgarri bat”. Horrelaxe hasten da liburua, eta irakurleak ikus dezakeen bezala, oso neska aparta dirudi Bioletak.

Liburuan neskatxaren egunerokoak aurkezten zaizkigu, ematen dituen paseoak Barrabas mastin txakurrarekin, errekan duen kobazulo sekretua, nola gozaten duen animalien kontuekin... baita ehiztari batekin duten enkontrua ere, berak eta Barrabasek, txakurraren zaintzapean ibiltzen baita beti Bioleta.

Argumentu aldetik, beraz, arina eta entretenigarria da liburua; testu gutxi eta ilustrazio ugariz lagunduta; irakurle hipotetikoaren gustuko kontuak eta protagonistarekin bat egiteko moduko gertakariak eta gogoetak. Ilustrazioek, gainera, hori guztia errazago eta gozoago egiten dute.

Liburuak, baina, badu aparteko meritua edo berezitasuna. Idazkera, istorioa kontatzeko erritmoa: “Baltsan doa. Barrabasekin batera, errekan behera. Paladaka hasi da Bioleta: erreka indarra neurtu behar du, ur korrontearen erritmoarekin bat egin nahian. Elkarrizketa bat da: ura eta bera”. Poetikotasunetik gertu, narrazioa arina da, baina ez samur eskainia.

Kontakizunak badu, gainera, misterio edo arrisku puntua; ehiztari baten arrastoa topatzen dutenean, “bat-batean, tiroa. Eta erreka geratu da ezin isilago. Isiltasunak hartu du erreka bazterra. Dena gelditu da une batetik bestera. Bioleta ausarta ere harria baino isilago geratu da”.

Amaiera zoriontsuak irakurlearen irribarrea ere sorrarazten du, baina, batez ere, Bioletak amonaren etxean bizi dituen istorio gehiagoren berri izateko gogoia pizten.